

## Azeribuztan zahar

GURE MUNDUAREN sorrerako garaiekin lotzen da azeribuztanaren landare generoa (*Equisetum*). Paleozoikoko garai Devoniarrean, duela 400 milioi urte inguru, bere senideak bizi ziren. Geroxeago, Karboniferoan, duela 300 milioi urteren bueltan, basoetako nagusiak ziren azeribuztan erraldoiak, 30 metro artekoak. Gaur erre eta erre ari garen ikatzaren, petrolioaren eta gasaren sorrera baso horietako landareetan dago. Azeribuztanaren ere bai.

Eta oraindik bizi dira haien ondorengoak, *Equisetum* genero horretakoak, alegia. *Equisetum* izena latineko *equi* (behorra) eta *seta* (zurda) hitzetatik dator. Bere formagatik buztanekin lotu izan da landare genero hau: astobuztana, mandobuztana, xagubuztana, arratoibuztana, muskerbuztana, mandabuztana, zamaribuztana, moxalbuztana, txerribuztana, zezenbuztana, behorbuztana... Buztan desberdin asko da gurean inguruko hizkuntzetan.

“Tornularien buztana” ere deitzen diote gazteleraz. Lantegiko tornuan aritzen dena edo barrute-gietako mojen etxeko tornuan dabilena, nor ote da izena eman

dion tornulari hori? Auskalo!

Izen xeblebre ugari du azeribuztanak. Beti bizi izan gara bere aldamenean, nor garenez gero. Behar izan dugunero hor izan da; azalean dituen silize kristalek mirariak, benetakoak, egiten baititu. Sendabelar arrunta da; kontuz erabili behar da, eta batez ere ongi identifikatuta: azeribuztan bat baino gehiago dago, eta denek ez dute, ezta gutxiago ere, eragin bera. Jaki ere bada: japoniarrentzat belar basaka estimatua da; Europa aldean udaberriko puja berri guriak zainzurien moduan jaten dira, baita arrautzetan pasatu eta frijitututa olio-ozpinarekin ere, eta zopa eta saltsetan ere topa dezakezu. Kosmetikan lepo erabiltzen da, halaber: lepo aldean, belarri izkinan, ezpainen eta beta-zalen ertzetan eta nonahi sortzen diren zimurrak leuntzeko. Itxura nagusi; itxuraz, ehunetako kolagenoari eutsiz azalari tenteago eusten dio. Beste azal batzuen leuntzaile ere badarabilgu. Espartzu



RROR-CC BY SA

bezala landare zati bat hartu eta beirazko eta metalezko piezak igurzten dira. Ederki garbitu eta leuntzen ditu brontzea, kobrea, zilarra, eztainua eta abar. “Eztainu-belarra” deitzen zaio gurean, eta gazteleraz, *limpiaplata*. Luthierrek maitea dute, zura ere gozo leuntzen omen du. ■

JAKOBA ERREKONDO



## Udaberria makal

MAKAL DATOR udaberria. Askok nahi baino mantsoago; noiz belztuko dugu kopeta eta erre sudur punta? Eguzkia garesti dago aurren, eta termometroa beheko aldean txarrantxatuta, ainguratuta.

Haltza, elorri beltza, astigar bakanak, mimosa, lizar ausart batzuk eta zuhaitz ale gutxi gehiago loratu da, dagoeneko. Gero, epelaren izerdiaren bultzadizoaz denak batera leher-tu eta udaberri motza eztandaraziko dute. Denak batera, eta kolore eta usain festan elurra egingo du. Makalaren fruituak haizearen dantzara ematen direnean, elurra egingo du. Makal dator, bai, udaberria. ■